



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Konpetentzia Digitalak

Graduko ikasleentzako formakuntza materialak

2. Komunikazioa eta lankidetzeta

2.5. Identitate digitalaren kudeaketa:

2.5.1. Zer da identitate digitala?

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala



Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

**Komunikazioa eta
lankidetzaz.
Identitate digitalaren
kudeaketa**

Zer da identitate digitala?




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUA

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



AURKIBIDEA

- Zer da identitate digitala?
- Identitate digitala osatzen duten elementuak
- Identitate digitalaren ezaugarriak
- Gehiago jakiteko...

ZER DA IDENTITATE DIGITALA

Identitate digitala Interneten eta Web 2.0. eremuan sorturiko kontzeptua da. Honela definitzen da:

Pertsona edo erakunde baten gaireko datu multzoa, zeinak Internet bidez eskuragarri baitaude publikoki.

Identitate fisikoaren edo analogikoaren informazioa barne hartzen du, baina webean azaltzen eta garatzen da.

Identitate zatikatua eta askotarikoa da, profil askotarikoek osatua, eraikia dagoen inguruaren edo testuinguruaren arabera.

ZER DIO WEBAK ZUTAZ?

Zure identitate digitalaz ideia argi bat izan nahi baduzu, bilatu zure izen abizenak Googlean, eta aurkitu zer dioen webak zutaz, argazkien, iruzkinen, loturen, informazio akademikoaren eta abarren bidez.

Noizbait webean argitaratu zenuen guztia grabatuta eta zutaz informazioa bilatu nahi duen edonorentzat eskuragarri geratzen da.

Gogoan izan bilatzailean komatxo artean jartzea zure izen abizenak. Adibidez: “Eneko Urien Peña”

IDENTITATE DIGITALAREN ELEMENTUAK

NICKA

1

Zure legezko izena erabiltzen duzu, edo gezurrezko bat? Zer izen mota da? Zer dio zutaz? Nick bakarra erabiltzen duzu, ala asko?

AVATARRA

2

Ordezkatzen zaituen argazki bat darabilzu, ala faltsu bat? Zer dio irudi horrek zutaz?

ARGITALPENAK

3

Zure identitate digitalaren funtsezko elementuak dira argitaratzen dituzun edukiak, non argitaratzen dituzun, eta nola argitaratzen dituzun.

ZERBITZUAK

4

Erabiltzen dituzun zerbitzuak (blogak, Instagram, Facebook), eremu digitalean, zeuk daramazun arropa edo maiz izaten zaren lekuak bezalakoak dira.

KONTAKTUAK

5

Zure kontaktuak asko ala gutxi dira? Zer pertsona mota dira? Maiz izaten duzu harremana haiekin? Nolakoak dira harreman horiek?

IRUZKINAK

6

Uzten al duzu iruzkinik, loturarik? Zer iruzkin mota, eta zer tonutan? Zer diote zutaz beste pertsona batzuek, nola balioesten zaituzte? Besteren iritziak zure identitate digitalaren zati dira.

ABSENTZIAK

7

Zure absentzia ere zure identitate digitalaren parte da. Ez al duzu blogik? Zer zerbitzu ez duzu erabiltzen? Zer ez duzu argitaratzen? Zer kontaktu mota ez daukazu?

IDENTITATE DIGITALAREN EZAUGAR

SOZIALA

1

Gure pertsonalitatea webean proiektatzen dugun neurrian eraikitzen da, batez ere sare sozialetan.

SUBJEKTIBOA

2

Pertsona arteko esperientzian oinarritua dago neurri handi batean, webean sortzen diren hainbat interakziotatik abiatuta.

KONPOSATUA

3

Ez da soilik pertsona fisikoak emandako datuekin eraikitzen, baizik eta baita hirugarrenek eskaintzen duten zeharkako informazio askoren arabera ere.

BALIOTSUA ETA ERREALA

4

Baliotsua da, webean transakzioak egiteko beharrezko konfiantza eta auresangarritasuna ematen duelako. Erreal da, eragin negatiboak edo positiboak izan ditzakeelako mundu errealean.

TESTUINGURUKO

5

Hainbat identitate izan daitezke aldi berean, testuinguru edo ingurune desberdinen arabera. Informazioa okerreko testuinguruan zabaltzeak eragin negatiboa izan dezake zure identitate digitalean.

ERREFERENTZIAL

6

Ez du aukerarik ematen pertsonak zuzenean ezagutzeko, baizik eta pertsona horren erreferentzia argitaratuak.

DINAMIKOA

7

Etengabe aldatzen ari den identitatea da, informazioaren etengabeko fluxu batetik abiatuta eratzen baita.

GEHIAGO JAKITEKO...

Kontsultatu [Online identitateari eta ospeari buruzko gidaren](#) 2. kapitulua.

Kontsultatu OCDEren

[At a Crossroads: Personhood and Digital Identity in the Information Society - OECD.org](#)

dokumentua.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu